



Mutrikuko Udala

131/2021 ALKATE EBAZPENA

Ikusirik Mutrikuko Saturraran hondartzako kantinearen, eta komunen zerbitzuen kontratazio espedienteari hasiera ematen zion 2021eko maiatzaren 10eko 101/2021 Alkate Ebazpena.

Kontuan harturik kontratazio mahaiaren 2020ko ekainaren 2ko esleipen proposamena.

Kontuan harturik kontratua esleitu aurretik, esleipendunari errekerimendua egin zitzaiola, Administrazio-klausulen 9. arabera 10 egun balioduneko epean dokumentazioa aurkez zezala, eta agiriak behar bezala aurkeztu dituela.

Kontuan harturik esleipendunak 2.500,00 €ko behin betiko fidantza ezarri duela.

Kontuan harturik Eraentza Lokaletako Oinarrien 7/1985 Lege Arautzailea eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, zeinaren bitartez onesten diren Eraentza Lokalean indarrean dauden Xedapenen Testu Bateratua,

EBATZI DUT

LEHENA.- Mutrikuko Saturraran hondartzako kantinearen, eta komunen zerbitzuen bidezko kontratua Ion Iñaki Iturrino Aguirre jaunari esleitzea.

BIGARRENA.- Ordaindu beharreko kanona 29.000,00 €koa (hogeita bederatzita mila euro) izango da.

HIRUGARRENA.- Esleipen honen iraupena 2021 eta 2022ko udako denboraldiak, eta bere kasuan, 2023rako luzapena.

LAUGARRENA.- Esleipendunak kontratua izenpetu aurretik kontratazio espedientean aurreikusitako gainerako baldintzak bete beharko ditu.

BOSGARRENA.- Udalbatzari Ebazpen honen berri ematea burutuko duen hurrengo ohiko osoko bilkuran.

Mutrikun, 2021eko ekainaren 11n

ALKATEA

Joseba Palenzuela Arrieta



Mutrikuko Udala